

Itxaro Borda

Odos Nikis

A

tenasen euria jaits ahala ari zuen arrastirian, Syntagma plazaren eskuineko karrika txikiko liburudendan aterbetu ginen alaba eta biok. Erakuts mahaietarik genbiltzan, nagi eta izpirituak behingoz huts. Saphoren olerki fragmentatuen oinarrizko hizkuntzazko bilduma bilatzen nuen nik, arrakastarik gabe. Ordez, jada noiztenka irakurtzen dudana Rea Galanaki poeta anderearen *Poimata* lana eskuratu nuen. Gustatzen zait arkeologo itsuen paragrafia zirilikoak deszifratzea eta erranahiak zinez zulatu baino asmatzea.

Halako batean azal leun tirriagarriarekiko liburu bat begimendu nuen. Egilearen izena iragartzen saiatu eta alabari harroki hurbildu nintzaion: “So’ixu, Simone de Beauvoiren 1964eko elaberriaren itzulpena’uxu, *Une mort très douce* preseski”. Soa uher beha zegokidan, normalean 1986an zendu idazlea ez nuela asko estimatzen erantsiz. Egia zuen, ezen duda-mudari nenbilerako bereziki *Bigarren Sexua* ikerketan edonori lesbiana izateko jaidurari xendra moztu ziolako. Baina Maulen emazte zainart eta hondarrean malerusaren autobiografia irentsi nuen, Atenasen ahurrean neukan greziarrezko *εναξ πολυ γλυκοξ Θανατοξ* hau barne. Sartreentzat nola, ederrena niretzat ere, agian gure ama ospitalean hiltzen zihoan hila-bete apurretan leitu nuelako.

Hiru aldiz gurutzatu genuen Grezian Castor-en itzala. Santorini uhartean, Sartrekin egin zuen oinezko hauts-bide berdina zapaldu genuen Thiratik Oiara kaldeira bolkanikoaren gainaldetik. 1937an belarontziak Ammoudiko portuan abandonatu zituen eta zanpa-zanpa joan ziren ilunabarrez Thiraraino, han baitzuten hotela. Ukigarri zitzaigun eguzkipean pizti haien hatzetarik ibiltzea. Bigarren aldiz, Naxosen geundela TV5 katean ikusi genuen itunez finkatu bikote entzuetetsuaz bildu telefilma. Nobel sariari Sar-



GAIZKA IROZ

trek uko egin zionerainoko gertakariak herrokatzen ziren. Arratsaldeko alfertasunean, zer nahi pentsatu arren, gaur egun pertsonaia horien trakako zenbaiten falta nabaritzen zela nerasan neurekiko. Intelektualak neoliberalak dira gehienbat eta gobernuen ekintzak salatzten dituztenei pantailetakoko leihoak hersten zaizkie.

Parosen ginelarik *Le Monde* egunkariaren lehen orrialdean Frantzian garatu polemikaren berri ukan genuen: Hortefeux Barne ministroaren deklarazio arrazistek sutzen zituzten bazterrak. Oroitu nintzen orduan Anne Marie Garat adiskideak izkiriatu eta kazeta berari bidali baina publikatu ez zioten artikuluaz. 2008ko martxoaren 9an Hortefeux-taz ari zen, itxura *aimable, drôle, charmant* baten azpian nolako immigrazio politika latza ematen zuen aztertzen. Jendarteak

betazalak apaltzen dituenean galtzera uzten duena deitoratzen zuen, Hannah Arendt-ek zehaztu “gaitzaren osagarri arrunta” aipatuz testua bukatzean.

Ez zen horrelakorik gertatuko Sartre eta de Beauvoiren denboran. Aho zabalak ziren eta engaiatuak, gabetuenen alde, doi bat naifak. Fillonek berak sostengatu Hortefeuxen kontra dagoeneko showbiz-eko izarrak baizik ez dira oldartzen, Guy Bedos eta Josiane Balasko adibidez. Isiltasuna dabil lerroetan, auzitara daramatzate ziberpaperak boterearekiko kritikoeziak direnean eta populua larderiak eta politikiaz setiatu datxizkate. Politikaren zero gradura iritsiak garelako lerrake Roland Barthes zenak.

Ikusgarria zen euria Plakako karriketaren bezain Monastiraki zein Omonia plaza kosmopolitetan. Mirakulua. Simone de Beauvoiren eleberriarekin jalgi ginen, Saphoren eresia elebidunen obratxoa etxean neukala baimendurik, Sartre laster ahantziko eta Castor oraindik biziko zela segur. ■

Hortefeux Barne ministroaren deklarazio arrazistek sutzen zituzten bazterrak. Oroitu nintzen orduan Anne Marie Garat adiskideak izkiriatu eta kazeta berari bidali baina publikatu ez zioten artikuluaz